BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/04/11

# Bizkaiko Batzar Nagusiek Korrikan hartu dabe parte Bilbotik igaro danean

Bizkaiko Batzar Nagusiek bat egin dabe Bilbotik gaur igaro dan Korrikagaz. Ana Otadui Bizkaiko Batzarretako Lehendakariak hartu dau Korrikaren lekukoa Autonomia kaleko hasieran, eta 1.751. kilometroa egin dau; beragaz batera, pasa dan agintaldiko hainbat batzarkidek egin daben arineketan euskararen alde: Jon Andoni Atutxa, Kontxi Claver, Mikel Bagan, Aitor Ibarra, Jesús Lekerikabeaskoa, Josu Unanue, Ekain Rico, Eneritz de Madariaga eta Nuria Atienza.

`Klika´ ("euskerearen aukerea hautatzeko eta geure hizkuntzak bizi dauen garai barriagaz bat egiteko deia") goiburua daukan Korrika honek 21. edizinoa egiten dau. Joan dan apirilaren 4an hasi zan Garesen, eta datorren apirilaren 14an, domekan, bukatuko da Gasteizen. 11 egunez, adin guztietako milaka persona 2.000 kilometro baino gehiago ari dira egiten, arineketan, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Iparraldeko eta Nafarroako bideetan, euskereari lagunduz, gelditzen ez dan lasterketan.

AEKk urte birik behin antolatzen dau lasterketea, eta bertan hainbat talde, erakunde eta persona txandakatzen dira, lekukoa eroateko. Bizkaiko Batzar Nagusiek orain urte bi be egin eben bat Korrikagaz. Orduko haretan Gernikako Batzarretxearen ondoan hartu eben lasterketaren lekukoa.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
11/04/2019

# Las Juntas Generales de Bizkaia participan en la Korrika, a su paso por Bilbao

Las Juntas Generales de Bizkaia se han sumado hoy a la Korrika, que ha discurrido por Bilbao. Ana Otadui, la Presidenta de la Cámara Foral vizcaína, ha cogido el testigo de la carrera al principio de la calle Autonomía, recorriendo el kilómetro 1751 acompañada de junteros y junteras de la pasada legislatura como Jon Andoni Atutxa, Kontxi Claver, Mikel Bagan, Aitor Ibarra, Jesús Lekerikabeaskoa, Josu Unanue, Ekain Rico, Eneritz de Madariaga y Nuria Atienza, quienes también han corrido a favor del euskera.

Bajo el lema `Klika´ ("un llamamiento a elegir la opción del euskera y unirse al nuevo tiempo que vive nuestra lengua"), ésta es ya la 21ª edición de la Korrika, que comenzó el pasado 4 de abril en Gares (Puente la Reina) y finalizará el próximo domingo 14 de abril en Vitoria-Gasteiz. Durante 11 días cientos de miles de personas de distintas edades están recorriendo más de 2.000 kilómetros de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparralde y Nafarroa apoyando la lengua vasca en una carrera que no se detiene en ningún momento.

AEK organiza cada dos años esta carrera en la que se turnan, llevando el testigo, diferentes colectivos, instituciones y personalidades. Las Juntas Generales de Bizkaia también se sumaron a la Korrika en 2017 y en esa ocasión, cogiendo el testigo de la carrera junto a la Casa de Juntas de Gernika.